

Behean sinatzen duenak:

Aitortzen du:

- a) Eskieran jasotako informazioa, curriculum vitae eta erantsitako dokumentuak egiazkoak direla eta errealitatearekin bat datozela.
- b) Horrez gain, ez duela bete beste eskaera bat Global Training 2022 bekarako hautagai moduan; bestela, hautaketa prozesutik kanpo geratuko da, eskaerak bikoizteagatik.
- c) Beka normaltasunez garatzea eragozten duen gaixotasunik edo muga fisiko edo psikikorik ez izatea; edo beka onartzeko orduan ez izatea eguneroko bizitzako jarduerak mugatzen dituen patologiarik.
- d) Unibertsitate-tituludunentzako antzeko prestakuntza helburua duen beste edozein laguntza jaso ez izana, baldin eta, laguntza horren bidez, nazioarteko erakunde edo enpresetan 6 hilabetez edo epe luzeagoz praktikak egin badira atzerrian. Bereziki, beka hauetaz baliatzea ez da bateragarria honako beka hauen onuradun izatearekin: Global Training beka, ICEX beka, beste autonomia-erkidego batzuenak, merkataritzaganberenak, EBko Merkataritza Sustatzeko Erakundeak edo antzeko beste erakunde batzuenak.
- e) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta izatea.
- f) Diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion zigor administratiborik edo penalik ez izatea edota horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ez izatea, sexua medio diskriminatzeagatik gertatutakoak barne, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko Seigarren Azken Xedapenean ezarritakoaren arabera".
- g) Onartzen dituela bekaren baldintzak. Horren arabera, beka emateko unean langabezian egon behar da.
- h) Inola ere ez naiz jarriko harremanetan harrera-enpresarekin hautapen-prozesutik kanpo geratzeko arriskua izanez gero.
- i) Bekadunarena izango da bekaren denboraldi osoan zehar dagokion dokumentazio guztia indarrean eta behar bezala izateko erantzukizuna.

.....-n, 2022koaren(e)an.

Sinadura: